

Ariketa hauek Ikasbileko 2037245 atazan aurkituko dituzu

Audioaren erreferentzia: JJ-63 Pisuaren pisuaz

Mailak: B2-C1

Funtzioak: hipotesiak egin, kexa eta gaitzespena azaldu

Adierazpide linguistikoak: lexikoa (*etxe, alde egin, bikote, elkarrekin, banandu, hots egin, istripu, abokatu, guraso, errudun, asmo, indemnizazio...*) Gaitzespena adierazteko *moldeak 8Barkatu ez ...-t(z)ea, baina..., Hori ere nire errua izango da!, Ez gaizki hartu, baina..., Eta zergatik ez zinen han.... -(e)nean?, Ez dakit inoiz buelta ematek gai izango ote garen)*

Azken ekintza: Bikotekideari egindako zerbaiten errua leporatu, kexa azalduz.

EGITEKOAK

1-Ikaskelara etorri aurretik egitekoa.

1.1 1.1 Egunkariko berria



Gaiari hurbiltzeko eta ikaskelan audio-pasartea entzun aurretik partekatzeko jarduera: Jonek egunkarian ikusi duen berri bat irakurriko dio Joneri. Izenburutik abiatuta, ikasleek berriak zer kontatuko duen asmatzen saiatuko dira, erantzun bat aukeratuta, edo bere hipotesia idatziz.

Izenburua: “Denda txino bat salatu dute pisua dela eta”. Zer kontatuko du berriak?

- Dendako pisuak okerreko kopuruak ematen dituela
- Denda egoera txarrean dagoen eraikin batean dagoela
- Jendeak gizendu egiten dela bertan erositako produktuengatik
- Besterik:

Zuzenketa: *Ariketak egiteko kilo bateko pesak saltzen zituzten, baina pesa bakoitzak 720 gramo pisatzen zituen. Pesa bakoitzarekin, 280 gramoko iruzurra egiten zuten.*



2- Ikaskelan amaitu ondoren egitekoak.

Pisu hitzaren esanahi desberdinak beste era batera adierazteko berridazketa ariketa

1- Entzun aurretik

1.2 1.2 Hipotesiak partekatu



Komentatu dezatela ikaskidearekin aurreko ariketan aukeratu edo idatzi duten hipotesia. Ondoren, elkarrizketaren hasiera entzun (-----) eta idatzi dezatela zein izan den salaketarako arrazoia.

Zuzenketa: *Ariketak egiteko kilo bateko pesak saltzen zituzten, baina pesa bakoitzak 720 gramo pisatzen zituen. Pesa bakoitzarekin, 280 gramoko iruzurra egiten zuten.*

2- Entzun bitartean

2.1 Zertaz ari dira?

Elkarriketa osoa entzungo dute eta zertaz ari diren antzeman behar dute. Erantzun bat aukeratu dezatela.

Zuzenketa:

- Elkarrekin bizi zireneko garaiak oraingoak baino hobeak zizan zirela
- Garai batean elkarrekin bizi ziren baina Joneren gurasoak ez zeuden ados eta utzi egin zuten
- Elkarrekin bizi zirenean gertatu zen zerbaiten errua nork izan ote zuen eztabaidatzen ari dira**
- Elkarrekin hasi dira bizitzen, baina ez dakite oso ondo denbora luzerako izango ote den

2.2 Baieztapenak

Elkarriketari buruzko baieztapenak egia ala gezurra diren adierazi, eta ondoren, ikaskidearekin alderatu dezatela

Zuzenketa:

✓	Joneren ustez, Jonek ez zuen hitza bete elkarrekin bizitzen egon ziren aurreko aldian
✓	Jon egun batetik bestera bakarrik geratu zen biok partekatzen zuten etxean
✗	Jonek ez du garai haiei buruz hitz egin nahi
✓	Jon koman egon zenean, Jone egunero joaten zen ospitalera
✓	Jon minduta dago Joneren azalpenik ez zuelako izan banaketa izan zenean
✗	Jon izan zen etxetik alde egin zuen lehena, baina ordurako Joneren arima ez zegoen bertan
✓	Joneren gurasoek Jon salatzearen arrazoia bientzat indemnizazio ahalik eta handiena ateratzea izan zen
✗	Joneren abokatuek sarritan deitu zioten Joni banaketa gertatu zenean beharrezko azalpenak emateko
✗	Jon komatik atera zenean, Jone berarekin zegoen ospitalean
✓	Jon oso haserre eta minduta dago Joneren gurasoek istripuaren errua berari bota ziotelako

2.3 Zeri buruz

Esaldiak irakurri eta lotu ditzatela bakoitzak adierazten duen ideiarekin. Ideia bat soberan dago.

Zuzenketa:

<i>“Pesaren pisua lapurtzea ... hori kontzeptu sofistikatu egia da niretzat”</i>	Txinatarren dendan gertatutakoari buruz
<i>“Pisu batean hiltzen dira eta urtebetera topatzen ditu gas errebisioa egitera doan pertsonak”</i>	Bakartiak diren pertsonen buruz
<i>“Hura bai izan zela pisuaren pisu guztia bat-batean bizkar gainean sentitzea”</i>	Jonek Jon utzi zuenean jaso zuen kolpeaz
<i>“Egun batetik bestera pisuan bakarrik geratu nintzen”</i>	Jone etxetik ezer esan gabe joan zela
	Etxea batek bakarrik ordaindu behar izan zuela

3- Entzun ondoren

3.1 Ahaztu ezin!



Ikasleek, bikote harremanetan gainditu gabeko kontuak direla medio gertatu ohi diren gaitzespen eta kexak aurrez-aurreko elkarrizketa batean azaldu behar dute.

Prozedura:

1. binaka, bikote harremanetan elkarri gehien leporatzen dizkioten kontuak zerrendatu (*Adb.: Bikotekide batek besteari leporatzea zerbait garestia erosi izana (motoa, arropa, bitxiak...)*)
2. Zerrendak taldeko gainerako kideekin partekatu
3. Aukeratu dezatela egoera bat eta asmatu dezatela bien arteko elkarrizketa. Jon eta Joneren arteko elkarrizketan ageri diren hainbat molde eta egitura dituzte ideia hartzeko.



Adibide hauek lagungarriak izan daitezke zuen elkarrizketa prestatzeko garaian:

- Ezer ez, ez. Zer esan duzu?
- Hori ez da egia!
- Nork egin zuen...?
- esan nahi duzu ala?
- Hori gauza bat da, baina...
- Hori aitzakia besterik ez da!
- Hura bai izan zela ...-t(z)ea!
- Ordurako...
- Gureak ez zeukan zentzurik
- Zure azalpenak nahi nituen eta zuk...
- Eta zenbatetan...?
- Eta zuk niri?
- Barkatu ez ...-t(z)ea, baina...
- Hori ere nire errua izango da!
- Ez gaizki hartu, baina...
- Eta zergatik ez zinen han.... -(e)nean?
- Ez dakit inoiz buelta emateko gai izango ote garen

BAKARKA EGITEKO ARIKETA

Pisuaz

Esaldi hauetan “pisu” hitza erabiltzen da. Ordezkatu ezazu testuinguruaren arabera beste hitz edo molderen bat erabiliz.

kilo, pesa, sakon, solairu, balantza, astun, etxe, etxebizitza

Zer pisu dauka harri horrek?	Zenbat kilo ditu harri horrek?
Jarri pisuak balantza gainean	Jarri pesak balantza gainean
Ez dago esnatzerik. Lo pisuak hartu du eta!	Ez dago esnatzerik. Lo sakona dauka eta
Zenbatgarren pisuan bizi zara?	Zenbatgarren solairuan bizi zara?
Pisua trukatuta dago gaztak garestiago kobratu ahal izateko	Balantza trukatuta dago gaztak garestiago kobratu ahal izateko
Maletak pisu handia du eta ezin dut altxatu	Maleta oso astuna da eta ezin dut altxatu
Lehen bizi nintzen pisuan ez zegoen igogailurik	Lehen bizi nintzen etxean ez zegoen igogailurik
Donostian pisu gehiago egin behar dituztela entzun dut	Donostian etxebizitza gehiago egin behar dituztela entzun dut

TRANSKRIPZIOA

- JON Entzun zer jartzen duen hemen: "Denda txino bat salatu dute pisua dela eta"
- JONE Pisuaz?
- JON: Bai...
- JONE: Jatekoa ere saltzen hasi dira txinoetan edo zer?
- JON Ez ez, pisu hori ez, "pesak" entzun. "ariketak egiteko kilo bateko pesak saltzen zituzten, baina pesa bakoitzak 720 gramo pisatzen zituen"
- JONE Jajajajaja ez da egia.
- JON Pesa bakoitzarekin, 280 gramoko iruzurra egiten zuten.
- JONE Joder.. buf... pesaren pisua lapurtzea. Hori kontzeptu sofistikatuegia da niretzat.
- JON Badakizu..."humor amarillo".
- JON Hainbeste saltzen al dute ba denda txinoek hiri erdiguneetan dituzten lokal handi horiek ordaindu ahal izateko?
- JONE Beno hori da gaur egungo misterioetako bat ez?
- JON Bai, beno, egia esan ni geroz eta gutxiagotan noa erdigunera... joaten naizen aldiro ia beti jende ezagunarekin egiten dut topo eta.
- JONE Eta hori arazo bat da klaro (jakina).
- JON Ba bai.. agurtu eta konpromisoko bi hitz gurutzatu behar duzun jendearekin topo egitea ez zait gustatzen, deseroso sentitzen naiz.
- JONE Zure modukoek badakizu nola amaitzen duten ezta? Pisu batean hiltzen dira eta urtebetera topatzen ditu gas errebisioa egitera doan tipoak.
- JON Baliteke, beraz, badaezpada ere, hemen, zure pisan geratuko naiz datozen 30 urteetan.
- JONE Horrelako zerbait esan zenidan behin eta gero ez zenuen hitza bete.
- JON Zer?
- JONE Ezer ez.
- JON Ezer ez, ez. Zer esan duzu?
- JON Zuk utzi ninduzun Jone.
- JONE Hori ez da egia.
- JON Nork egin zuen alde etxetik?
- JONE Hori gauza bat da, baina nik etxetik alde egin nuenerako, zu ez zeunden han.
- JON Ni bertan bizi nintzen.
- JONE Bizi bai, baina zu ez zinen han nirekin, zure arima, zure... nahi duzun moduan esan. Ez zeunden han.
- JON Arima? Hori filosofia merkea da Jone. Egun batetik bestera pisan bakarrik geratu nintzen. Eta hura bai izan zela pisuaren pisu guztia bat-batean bizkar gainean sentitzea.
- JONE Ordurako ia, badakizu Jon, ez geunden elkarrekin, ez zuen zentzurik.
- JON Pisu elkarrekin konpartitzen genuen eta han utzi ninduzun, ez zenidan azalpenik eman.
- JONE Ez zenuen azalpenik entzun nahi.
- JON Ez nuen zure abokatuen...
- JONE (moztuaz)Nire gurasoen abokatuen.
- JON (moztuaz) Zuen abokatuen azalpenik nahi, ez bota beti errua zure gurasoei. Zure azalpenak nahi nituen. Zurekin hitz egin.
- JONE Eta zenbatetan hots egin zenidan nirekin hitz egiteko?
- JON Ez dakit, gutxi, baina hots egin nizun.
- JONE Bi aldiz Jon
- JON Eta zuk niri?



JONE Ni ia egunero joan nintzen erresidentzira koman zeundenean.

JON Barkatu ez akordatzea. Ah klaro (jakina) koman nengoen eta ez naiz akordatzen, hori ere nire errua izango da.

JONE Ia egunero Jon.

JON Eta zergatik ez zeunden han komatik atera nintzenean?

JONE Ni ere ez nengoen ongi eta gero abokatuen kontu guzti hura gertatu zen eta bai, nire gurasoek ez zuten zuzen jokatu, eta badakit haiei kasu egitea nire errua izan zela.

JON Nire errua Jone, istripuaren kontua nire errua izan zela esan zuten.

JONE Baina beren asmoa ez zen txarra. Indemnizazio ahalik eta handiena ateratzea. Biontzat.

JON Indemnizazioa? Zertarako balio izan dit niri indemnizazioak? Hemendik alde egin eta 10 urtez zu ahazten saiatzen gastatu dut eta!

JONE Jon.

JON Niri bota zidaten errua Jone.

JONE Nora zoaz Jon?

JON Etxera, buelta bat eman behar dut.

JONE Jon geratu zaitez.

JON Ez gaizki hartu Jone baina alde egin beharra daukat. Ez dakit gertatu zitzaigunari inoiz buelta emateko kapaz izango ote garen.

JONE Jon.